

Desioaren aurrezkia (2004-2007)

Beatriz Erraez

“Desioaren aurrezkia 2004-2007” izenburua jarri dio Iñaki Cerrajería (Gasteiz, 1957) azken lau urteetan egindako lanen aukeraketa eskaintzen duen erakusketa honi. Era berean, lan aro baten amaiera da erakusketa. Montehermosoko espazioko hormak hainbat kolorez margotu dira, eta haien gainean banatu irudi multzoak. Pintura eta argazkiak sortzerakoan margotzeko eta kolorea aztertzeko hainbat metodo erabili dira, eta lanen izenburuek egituratzen dituzten osagaiak egiten diete aipamen zuzena: turquesa; verde y amarillo; azul y negro; verde, azul y amarillo; azul, naranja y rojo; azul y naranja; rojo y negro; sky blue; noir blue; golden blue; dourado; the greens; le rouge cramoisi; grey silver; verde pisello; yellow pink; rouge; gelb; gorria; urdina; bianco rosso; salmón azul; green pink; blauw; blanco negro. “Kolore edukiontzia” dira, artistak egikera “posiblei” eta margolari "lanbideari" berari buruz egindako hausnarketa etengabearen hurrenez hurrengo zatiak.

Erakusketan jarritako lanak –zeinak “amaiera” asmoaren barruan katalogatu baitira argitalpen honetan– estudioan banaka taxututako osagaiak baliatuz erakustaretoan bertan biribiltzen diren konposizio muralak dira. Ezusteko asoziazioak dira, tamaina ezberdinetako margoez eraikiak, zeinetan materialen –lantzeko erabili den olioaren– presentzia fisikoa nabarmena baita, askotariko metodoak erabili baitira lana gauzatzeko: pintura geruza meheak edo lodiagoak, kolorerik eza edo beltzaren erabilera, tinta deigarriak... Geruza horien zeregina ekintza bat, oihalaren gainean "pintura ezartzea" hain zuzen, erregistratzea da; Cerrajería lantegian garatutako jardueraren zenbait une sistematikoki agerian jartzen eta ezkututzen dituzten piezak sortzeko egin duen bidearen ondorioa da hori. Margoez aurretik ezarritako mugarik ez duten lan multzoak osatzen dituzte, eta horien osagarri argazki irudiak ditugu: artistak digitalki manipulatu ditu argazkiak, zehaztasuna kentzeraino eta, nolabait, pinturaren esparrura “desbideratu” ditu, ezein oinarri figuratibotik aldendu, kolore hedatuzko multzoetan sartzeko.

“Desioaren aurrezkia” erakustaretoan banatzen diren aldizkako asoziazioez biribiltzen da osotara, multzoek geletako hormak estaltzen dituzten koloreekin duten erlazioaz: tonu deigarri eta saturatuak (laranjak, urdinak, horiak eta berdeak) hormen gainean, edo espazioa zatituz frisoen antzera. Kubo zuria piezak banatzeko “laborategi” antzeko bat bihurtuta zehazten da azkenean prozesuaren emaitza: lantegi ireki eta errektibo berria egokitzen da horrela, zeinean ikuslea estudioaren osagaia baita. Pintura ia "kontestual" horrek zalantzan jartzen ditu margolaritzaren mugak, ezustean formula “konbentzionalenak” eta “lanbidearen” oinarritzko osagaiak erabiliz. Prozesu horretan ekintza kontrajarriek eta, neurri batean, kontraesankorrek bat egingo dute: oihalaren gainean finkatzen diren oroitzapen zatiak, gero "isildu" egingo direnak, hurrenez hurrengo informazio geruzak (kolore eta testurak) gainjarriz. Palimpsesto gisa eraikitako irudiak dira, uneen, denboraren finkatzaileak, artistaren aurreko erakusketetan –Amerika aretoan 1996an “La pintura, un instante” izenburuz aurkeztutakoak, esaterako– jadanik presente zeuden “objektuak”.